

AZPEITIA / Astelehenean hasiko dira Udal liburutegiko ipuin kontaketa saioak

Haurrentzako ipuin kontaketa saioek arrakasta izaten dute, eta aurten 20. urtez antolatu dituzte

NEREA URANGA

Astelehenean, Udal Liburutegiko Haurren Txokoan Maite Franko ariko da 4 eta 5 urteko haurrei ipuinak kontatzen. 18:00etan hasiko du saioa. Horrela, haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioei hasiera emango diote. Aurtengo honetan 20. urtez antolatuko dituzte saioak. Udal Liburutegiko arduradunen esanetan, arrakasta izaten duten saioak dira, haur asko etortzen da.

Astelehenean hasi eta azaroaren 23ra bitartean hamar saio antolatu dituzte. Adinka banatuta, 4 urtetik hasi eta 9 urtera artekoentzako dira. Ipuin kontaketa saio guztiak 18:00etan hasiko dira, eta hitzordura puntual azaltzeko eskatu dute liburutegikoek. Hasi aurretik denak ondo eseri eta bost minutu hartzen ditugu, baina ordua errespetatzeko eskatzen dugu. Saioetan haurrek bakarrik egon behar dute; gurasoek ezin dute Haurren Txokora sartu. Haur txikiaren kasuan, saioa ari den bitartean gurasoak liburutegiaren inguruan egotea eskatzen dugu, bateren bat negarrez hasiz gero gertu egoteko.

Ipuin kontalarien artean denak ezagunak dira Azpeitiko liburutegigian, beste urteetan ere etorri izan direlako.

Ipuin kontaketa saioak

Ipuin kontaketa saio guztiak Udal Liburutegiko Haurren Txokoan izango dira, 18:00etan hasita.

Irailak 14. Maite Franko ipuin kontalaria. 4 eta 5 urteko haurrentzako.

Irailak 21. Lupe Lekuona ipuin kontalaria. 6 eta 7 urteko haurrentzako.

Irailak 28. Amaia Zinkunegi ipuin kontalaria. 8 eta 9 urteko haurrentzako.

Urriak 5. Pello Añorga ipuin kontalaria. 4 eta 5 urtekoentzat.

Urriak 19. Maite Franko ipuin kontalaria. 6 eta 7 urtekoentzat.

Urriak 26. Lupe Lekuona ipuin kontalaria. 8 eta 9 urtekoentzat.

Azaroak 2. Miriam Mendoza ipuin kontalaria. 6 eta 7 urteko haurrentzako.

Azaroak 9. Miriam Mendoza ipuin kontalaria. 4 eta 5 urteko haurrentzako.

Azaroak 16. Pello Añorga kontalaria. 6 eta 7 urtekoentzat.

Azaroak 23. Pello Añorga ipuin kontalaria. 4 eta 5 urteko haurrentzako.